

EUROPAKO HIRI POST-INDUSTRIALEN FOROA ZAGREBEN

Posted on 06/07/2026 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Hiri-erronkak](#), [Hirien berroneratzea eta biziberritzea](#)

Uztailaren 1etik 3ra, Haizea Aguirre, NAIDEReko Hiri Birgaitze koordinatzaileak, European Post-Industrial UNIC Cities Leaders Forum ekitaldian parte hartu zuen, Zagreben ospatu zena [UNIC Europako unibertsitate-aliantzaren](#) esparruan.

Foroak **10 hiri europetako** udal-liderrak, unibertsitateak, enpresak eta komunitateak bildu zituen erronka urbanoak elkarrekin konpontzeko: klima-ekintza, etxebizitza eskuragarria eta **gobernantzaren eta berrikuntza irekiaren** arloan.

Haizeak **hiri adimentsu eta klimatikoki neutroen trantsizioari** buruzko lan-mahaian parte hartu zuen — **hiri birgaitze eta biziberritzeari** bultzada ematen diotenak —, Deustuko Unibertsitatearen, Łódź Hiriaren, Liègeko Unibertsitatearen, Corkeko University College-aren eta Zagrebeko Unibertsitatearen ordezkariekin batera; hiri eta lurraldeei birgaitze eta biziberritze-prozesuetan laguntzen diegula frogatzeko aukera ere izan zen.

NAIDER Bilboko delegazioaren parte gisa joan zen, Juan Mari Aburto alkateak gidatuta eta [Bilboko Udalak](#) eta [Deustuko Unibertsitateak](#) lideratuta.





